



Gazte ekintzaileek enpresak sortzeko 2020an eman beharreko diru-laguntzen I. deialdia.

Urriaren 28ko 63/2020 zk. Dekretua AUMko Presidentziarena, 2020. urtean Arratiako Udalen Mankomunitatearen (aurrerantzean AUM) diru-laguntzak emateko I. Deialdiaren oinarri arautzaileak onartu dira, gazte ekintzaileek enpresak sor ditzaten, jasotako eskaeren banakako ebaluazioaren bidez.

2020an diru-laguntzak emateko I. Deialdiaren oinarri arautzaileak interesdunen eskura daude AUM web-orrian (<http://www.arratia.net>).

Deialdi honen xedea honako hau da: deialdi honetako A) atalean zehazten diren jarduerak gauzatzeko diru-laguntzak banan-banan ebaluatzeko erregimenean emateko prozedura garatzea.

A. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren helburua:

Deialdiaren helburua Arratian 18 eta 35 urte bitarteko gazteek jarduera ekonomiko berriak sortzeko eta abian jartzeko gastuak diruz laguntzea da.

Jarduera ekonomiko berritzat hartuko da 2019ko irailaren 15etik 2020ko irailaren 14ra bitartean (biak barne) JEZen lehen aldiz alta eman duena.

Kanpoan geratzen dira lehendik dagoen enpresa baten izena aldatzetik, forma juridikotik, kapitala handitzetik edo egiturazko aldaketa batetik datozen enpresak. Baztertze arrazoia izango da, halaber, deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan jarduera berean edo antzeko batean aritzea norberaren kontura. Baldin eta eskatzailea pertsona juridikoa edo sozietatea bada, partaide edo bazkide guztiek baldintza hori bete beharko dute. Era berean, ez dira jarduera berritzat hartuko jarduera zabaltzea, hau da, ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe berri bateko altak, hasierako jarduerari eutsita.

2. Deialdiaren xedea:

Deialdiaren helburua ondokoa da: gazte ekintzaileei Arratian jarduera ekonomiko berriak sortzen laguntzea.

3. Diruz lagun daitezkeen ekintzak/proiektuak/jokabideak/jarduerak egiteko baldintzak eta epea:

Deialdi honetako C.1 atalean adierazitako baldintzak betetzen dituzten eta 2019ko irailaren 15etik 2020ko irailaren 14ra bitartean (biak barne) jarduera ekonomiko berriak hasten dituztenak izango dira diru-laguntzon onuradunak. Jarduera hasteko datatzat hartuko da JEZen alta emandako data.

Diru-laguntza honetatik kanpo geratuko dira jokoarekin, tabernekin edo antzekoekin lotutako jarduerak (JEZen 673 eta 969 epigrafeak), bai eta sexuagatik diskriminatzaileak diren proiektu edo jarduerak ere, sexu-desberdintasunak zuzentzeko helburua duten kasuetan izan ezik.



4. Baloratzeko betekizunak, moduak eta lehentasunak:

Dirulaguntzak oinarri hauetan ezarritako betekizunen arabera emango dira, eta, betiere, eskaerari aurre egiteko aurrekontu-kontsignazioa badago. Dirulaguntza hauek emateko, kreditu erabilgarria egon beharko da indarrean dagoen aurrekontuan.

B) puntuak ezarritako zenbatekoa emateko, eskaera bakoitzak lortutako puntuazio osoaren arabera banatuko da, honako irizpide hauek aplikatu ondoren:

- Berritzailea izatea: balio erantsia edukitzea edota originala izatea. 100etik 10 puntu.
- Enplegua sortzeko aukera eta horien kalitatea. 100etik 30 puntu.
- Eragin soziala. 100etik 20 puntu.
- Proiektuaren ingurumen-jasangarritasuna, 100etik 20 puntu.
- Proiektuaren ekonomia-jasangarritasuna. 100etik 20 puntu.

Puntu bakoitzaren balioa lortzeko, honako eragiketa hau egingo da: eskaera guztien puntu guztiak zati B) puntuak ezarritako zenbatekoa.

B. AURREKONTU-KREDITUAK:

1. Deialdiari dagokion guztirako eta gehieneko zenbatekoa : 7.000,00 euro.

Atal honen amaieran adierazten dena alde batera uzteke, baldin eta 2020rako aurrekontu-esleipena ez bada nahikoa jasotzen diren eskabide guztiei erantzuteko, eta abian den urterako Gazteria 2020 Programan aurreikusirik dauden beste jarduera batzuk gauzatzen ez badira, jarduera horietarako aurreikusita dauden zenbatekoak deialdi honetan baietsi ahal izango dira, eta, hainbestez, kreditu erabilgarria handitu. Luzapen horren onuradun izan daitezkeen erakundeek deialdi honetan ezarritako dagoenaren arabera aurkeztu beharko dituzte eskabideak, bertan ezartzen den epearen barruan.

C. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuradun izateko beharkizunak:

Diru-laguntza emateko arrazoi den egoeran diren pertsona edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondorik aipatzen diren inguruabarrak gertatzen badira, salbu eta, diru-laguntzaren izaera dela-eta, baldintza hori salbuesten denean, eta idatz-zati honetan hala adierazten bada.

Deialdi honetako a) letran ezarritakoa betez, honako beharkizun zehatz hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke diru-laguntza honen onuradun:

a) Eskatzaileek 18 eta 35 urte bitarteko adina izan beharko dute jarduera hasten den egunean. Jarduera hasteko datatzat hartuko da jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emandako eguna. Eskatzaileak diru-laguntza jasotzeko duen izaeraren arabera, adinaren baldintza hori honako kasu hauetan zehazten da:

- Pertsona fisikoak. 18 eta 35 urte bitarte izan beharko dituzte (biak barne) eta unitate ekonomiko bat osatu.



- Sozietate zibilak, irregularrak, kolektiboak edo komanditako sozietate bakunak. Bazkide guztiek 18 urte beteta izan beharko dituzte, eta ez 35 urte baino gehiago.

- Kapitaleko merkataritza sozietateak, lan-sozietateak eta kooperatibak. Kapital sozial osoa 18 eta 35 urte bitarteko bazkide gazteek emandakoa izan beharko da.

b) Diru-laguntzaren xede den jarduera ekonomikoaren zerga eta negozio helbidea Arratian egon beharko da.

c) Entitate eskatzaileak Arratiako udalerriren batean (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa edo Zeanuri) alta emanda egon beharko du Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, A.3 atalean ezarritako epean, hau da, 2019ko irailaren 15etik 2020ko irailaren 14ra bitartean.

2. Pertsona edo entitate onuradunaren izaerari dagozkion beharkizunak egiaztatzeko modua:

Deialdi honetako F.4) atalean eskatzen den diru-laguntzarako eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa eta informazioa aurkeztuz egingo da.

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, atal honetan aipatzen direnak dira pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak.

- Berariazko betebeharrak:
 - Diruz laguntzen den jarduera 18 hilabetez mantentzea, JEZen alta ematen den egunetik hasita.
 - Diruz laguntzen diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduerak Arratiako Udalen Mankomunitateak finantzatu dituela behar bezala jakinarazteko betebeharra:
- Pertsona edo erakunde onuradunak hartu beharreko hedapen-neurriak:
 - Arratiako Udalen Mankomunitatearen irudi instituzionala sartzea.
 - Legendak (irudi-testuak) karteletan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, etab.
 - Oroitzapenezko plakak.
 - Hedabideetako aipamenak.
 - Beste batzuk: Arratiako Udalen Mankomunitateak beretzat gordetzen du diru-laguntzak emateko ekitaldi publiko bat egiteko aukera. Ekitaldi horretan, onuradunak berak edo eskuordetzen duen pertsonak parte hartuko du.
 - Ondasunak diru-laguntzaren xede den xederako erabili beharra.

E. PROIEKTUAREN ALDARAZPENAK:

- Ezin da aldarazpenik egin proiektuan.



F. ESKABIDEEN AURKEZPENA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Pertsona juridikoak diren eskatzaileek, edo Administrazio Publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera beharturik daudenek, Eskabideak gazteria.arratia@bizkaia.org helbidean aurkeztu beharko dira.

Administrazio Publikoarekin harreman elektronikoa izatera beharturik ez dauden pertsona fisikoek eskabideak aurkeztu ahal izango dituzte Arratiako Udalen Mankomunitateko Dokumentazioaren Sarrera Erregistro Orokorrean.

2. Eskabideak aurkezteko epea:

Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2020ko abenduaren 11an amaituko da (egun hori barne).

Eskabideak aipatu epetik kanpo aurkeztuz gero, ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko modua:

Eskabideak interesdunak edo haren ordezkariak zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz frogatzen duen pertsonak sinatutako eskaeraren bidez aurkeztuko dira, deialdi honen I. eranskineko ereduaren arabera. Eskabideei deialdi honetako F.4) atalean aipatzen diren agiri eta informazioak erantsiko zaizkie.

Baldin eta eskabideak deialdian ezarririk dauden beharkizunak betetzen ez baditu, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar eguneko gehienezko epe luzaezinean akatsa zuzentzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondorik.

Baldin eta eskatzen diren dokumentuak Arratiako Udalen Mankomunitatearen esku badaude, horien ordezkariak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, eta bertan adieraziko da noiz aurkeztu edo, hala badagokio, noiz eman diren edo zein egunetan dauden. Dena den, ez dira inoiz bost urte baino gehiago igaroko kasuan kasuko prozedura amaitzen denetik.

Diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berarekin dakar deialdi honetako oinarri guztiak onartzea.

4. Eskabideekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna eta, hala badagokio, bere izenean jarduten duen pertsonaren ordezkariak frogatzen duten agiriak.

a.1) Pertsona fisikoak diren eskatzaileak:

- NAN edo agiri hau erregelamenduz ordeztzen duen dokumentua.

a.2) Sozietate irregularrak edo sozietate zibilak diren eskatzaileak:

- Eratu izanaren egiaztagiria, egoki den erregistroan inskribatua, hala badagokio.

- Bazkide guztien NANA.



- Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) egiaztatzen duen txartela.

a.3) Aipatutakoez besteko pertsona juridikoak diren eskatzaileak:

- Enpresaren eraketa-eskritura, Merkataritza Erregistroan edo egoki den erregistro ofizialean behar bezala inskribatua.

- Eratutako jardueraren legezko ordezkariaren duen pertsonaren NAN.

- Bazkide langile guztien NANA.

- Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) egiaztatzen duen txartela.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, non eskatzaileak deialdi honetan onuradun izateko eskatzen diren beharrezko orokorrak betetzen dituela adieraziko baita.

c) Eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituela egiaztatzea. Horretarako, honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

- Eskatzaileak betebehar horiek guztiak egunean dituela dioen erantzukizunpeko adierazpena. Kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpena proposatu baino lehen, administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak aurkezteko eskatu beharko zaio interesdunari, 15 eguneko epean gehienez ere. Ziurtagiri horiek adierazpenean jasotzen diren datuak egiazkoak direla egiaztatu beharko dute.

Arratiako Udalen Mankomunitateak ofizios egiaztatuko du interesdunak administrazio honekin dituen zerga-betebeharrak eguneratuak dituela, eta inguruabar hori eginbide egokiaren bidez adieraziko du.

d) Eskatzailea pertsona fisiko edo juridikoen, publiko nahiz pribatuen, nortasunik gabeko elkarte bat denean, eskabidean berariaz adierazi beharko dira elkarteko kide bakoitzak bere gain hartzen dituen betearazte-konpromisoak, bai eta bakoitzak aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa ere. Pertsona hori ere onuraduntzat hartuko da. Elkartearen ordezkari edo ahalduen bakarria izendatu beharko da, eta ahalorde askietsiak izango ditu, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko.

e) Beste administrazio, erakunde edo pertsona publiko edo pribatu batzuek xede bererako eskatu eta/edo jasotako diru-laguntzen adierazpena, eskatutako zenbatekoa, erakundearen izena eta lortutako zenbatekoa zehazturik. (Ikus, hala badagokio, deialdi honen III. eranskina).

f) Diru-laguntzaren xede den proiektua/ekintza/jarduera/programa deskribatzen duen memoria. Enpresa plana aurkeztea, IV. eranskinaren arabera.

g) Irudiak erabiltzeko, komunikazioak bidaltzeko eta beste administrazio publiko batzuetan datuak kontsultatzeko baimena (V. ERANSKINA).

h) Justifikazio-kontua, deialdi honetako M atalean ezarritakoaren arabera (VI. ERANSKINA).

i) Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea (VII. ERANSKINA).

j) Nahi izanez gero, aurkezten den proiektuaren izaera hobeto ulertzeko balio duen beste edozein dokumentazio edo informazio erantsi ahal izango da (dosierra, liburuxkak edo bestelako publikitate-euskarriak, web-orriak, etab.).

Dokumentuak jatorrizkoak, kopia konpultsatuak edo benetakoak izan beharko dute, indarrean dagoen legeriaren arabera.



G. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Espedienteak sarrera-ordenaren arabera izapidetu eta ebatziko dira, aurrekontuan horretarako kreditua dagoen bitartean, eta deialdi honetako A.4) atalean adierazitako beharkizun, era eta lehentasunen arabera. Ebazpen proposamena, behar bezala arrazoitua, instrukzio organoak egingo du, espedientea ikusirik, eta ebatzeko eskumena duen organoari igorriko dio.

Baldin eta diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldarazten badira eta, nolahi ere, baldin beste administrazio batzuek edo erakunde publiko edo pribatuek, nazionalak nahiz nazioartekoak, emandako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratzen badira, emakidaren ebazpena aldarazi ahal izango da.

2. Ebatzeko eta jakinarazteko epea:

Ebatzeko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatuko da epea, non eta deialdia ez den geroagoko egun batera atzeratzen. Prozedura ebatzeko gehieneko epea beren-beregiko ebazpenik eman gabe bukatzen bada, eskabidea ezetsizat joko da.

Diru-laguntza emateko ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta berariaz adierazi beharko da zein pertsona edo erakunde eskatzaileari eman zaion diru-laguntza, eta zenbatekoa, eta, hala badagokio, zein pertsona edo erakunde eskatzaile ezetsi den.

Emakida-ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta pertsona edo erakunde eskatzaileari edo bestelako eskatzaileari jakinaraziko zaio, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritik dagoenarekin bat etorritik.

3. Ebatzeko eta jakinarazteko gehieneko epea egun honetatik aurrera kontatuko da:

Eskabidea tramitzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera.

Prozedura ebatzeko gehieneko epea beren-beregiko ebazpenik emateke bukatzen bada, eskabidea ezetsizat joko da.

H. EMATEN DIREN DIRU-LAGUNTZEN PUBLIZITATEA:

Diru-laguntza emateko ebazpena argitaratzea:

Arratiako Udalen Mankomunitateak emandako edozein diru-laguntzarekin, baldintza hau bete beharko da: diruz laguntzen den jardueraren dokumentazio eta propaganda idatzi edo grafikoan adierazi behar da diru-laguntza hori Mankomunitateak eman duela, baita Arratiako Udalen Mankomunitatearen logotipoa ere.

I. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK:

1. Diruz lagundu daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira, diruz laguntzen den jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta I.2) atalean ezarritik dagoen epean egiten direnak. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, gastu hauek izango dira diru-laguntzen xede:



Arratian jarduera ekonomikoa sortu eta abian jartzearekin zerikusia duten gastuak, hala nola:

- Jarduera hasteko behar diren gastuak (notariotza, erregistro gastuak eta jarduera irekitzearekin edo hastearekin zuzenean loturik dauden bestelako gastuak: bisita-txartelak, logotipoen diseinua, marka-irudia, webgunea, markaren erregistroa, patentea, erabilgarritasun-eredua, domeinuzena, etab.).

- Jarduera hasi eta hurrengo hiru hilabeteetako alokairu-gastuak. Errentariaren eta errentatzailearen artean hirugarren gradurainoko ahaidetasuna duten alokairuek ez dute diru-laguntzarik jasoko. Fidantza gisa ordaintzen diren kopuruak ere ez dira diruz lagunduko.

- Negozio-traspasoak. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko da kontzeptu honengatik ordaintzen den zenbateko osoa, izakinak eta salgaiak kenduta.

- Aldizkako gastuak, hala nola Gizarte Segurantzako kuotak, nominak, kontsumo elektrikoa, telefono kontsumoa eta antzekoak. Jarduera hasi eta hurrengo hiru hilabetei dagozkien gastuak baino ez dira kontuan hartuko. Gastua egiteko datatzat hartuko da fakturak edo egindako gastua frogatzen duten bestelako agiriak igortzen diren eguna.

Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskurapen kostua ez da inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izango.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honetako M.2) atalean zehazten den justifikazio aldia bukatu baino lehen ordaindu dena:

Ez dira inola ere diruz lagunduko:

- Tokiko zergak.
- Berreskuratu edo konpentsatu daitezkeen zeharkako zergak. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) onuradunak benetan ordaindu duen eta kengarria ez den zenbatekoa baizik ez da diruz lagunduko. Inguruabar hori kasuaren arabera justifikatu beharko da.
- Argi eta garbi zehazturik ez dauden gastuak.
- Diruz lagundu daitezkeen jarduera ekonomikoa abian jartzeko edo garatzeko behar-beharrezkoak ez diren gastuak.
- Enpresako bazkideek, jabeek edo haien senideek erabilera pribatua izan dezaketen gastuak (gasolina-fakturak, autobideko bidesariak edo antzekoak).
- Prestakuntza-gastuak.
- Saltzeko ondasunak erosteko gastuak.

2. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak egiteko epea:

Eskatzailearen JEZen alta eman aurreko sei hilabeteak eta ondoko hiru hilabeteak.

J. DIRUZ LAGUNTZEN DIREN JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunak diruz laguntzen den jarduera bere ekarpenaren bidez edo beste baliabide batzuetatik etorrira estali beharko du, atal honetan adierazten den zenbatekoaren edo portzentajearen arabera. Diruz laguntzen den jardueraren zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa justifikatu beharko dira.



Zenbatekoa edo portzentajea: jarduera sortu eta abian jartzeko gastuen % 30 gutxienez.

K. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Diru-laguntza jasotzea BATERAGARRIA da beste edozein administrazio, entitate edo pertsonak xede bererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Diru-laguntzaren zenbatekoak, bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu. Halakorik gertatuz gero, erdiesten den soberakina itzuli beharko da, baita horri dagokion berandutza interesa ere.

Pertsona edo entitate onuradunak diruz laguntzen duen jarduera finantzatzeko eskatu edo erdiesten diren beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpena jakin bezain laster egingo da eta, betiere, jasotzen den dirua zertan erabili den justifikatu baino lehen.

L. ORDAINKETA:

1. Ordainketa-sistema:

Diru-laguntza honela ordainduko da:

- Diruz laguntzen diren ekintzak / proiektuak / jokaerak / jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa izango da.

Ezin izango da diru-laguntza ordaindu pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak ez dituen bitartean, edo dirua itzultzeko ebazpenaren ondoriozko zorduna den bitartean.

Arestion adierazi denaren kalterik gabe, Arratiako Udalen Mankomunitateak ofizios kitatu ahal izango ditu diru-laguntzen onuradunek kobratzeke dituzten zorrak. Zor diren kopuruak diru-laguntzaren zenbatekoekin konpentsatuko dira, ematen den diru-laguntza osoarekin edo ordaindu gabeko zorrari dagokion zatiarekin.

M. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikazioaren modalitatea:

Ezarririk dauden baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren helburuak bete direla frogatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio kontua, gastuaren frogagiria aurkeztuta.

Diru-laguntzarekin finantzatu diren jardueren eta haien kostuaren ebaluazio memoria zehatza aurkeztuko da. Memoriarekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Egindako gastuen zerrenda, modu sekuentzian zenbakitua (VI. ERANSKINA).

b) Egindako gastuak egiaztatzeko agiriak: indarrean dagoen araudiaren arabeko fakturak edo ordezeko agiriak, nominak, zergak eta Gizarte Segurantzako kuotak, edo merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten bestelako agiriak. Agiriak zenbakituta eta ordenatuta aurkeztuko dira, VI. ERANSKINEKO zerrendan esleitutako ordenaren



arabera. Dokumentuek diru-laguntzaren xede den jardueraren titularra den pertsona fisikoa, sozietatea edo pertsona juridikoa adierazi beharko dute.

Fakturak egiten dituen entitatea BEZa ordaintzetik salbuetsirik dagoenean, organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, salbuespena modu frogagarrian egiaztatzen duena.

c) Egindako ordainketen frogagiriak. Ordainketak banku-laburpenen bidez edo justifikazio gisa aurkeztutako agiriak ordaindu direla frogatzen duten bestelako agirien bidez (fakturak, etab.) egiaztatuko dira. Eskudirutan egiten diren ordainketek indarrean dagoen legerian ezarritik dauden mugen barruan egon beharko dute, eta horiek justifikatzen dituzten agiriak eskudirutan ordaindu direla zehaztu beharko dute.

d) Langileen gastuak frogatzen dituzten agiriak. Lan-kontratuen kopia, nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazioen frogagiriak aurkeztu beharko dira.

Eskatzen diren agiri guztiek balio izan beharko dute merkataritzako trafiko juridikoaren edo eraginkortasun administratiboaren arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, aurkeztzen diren kontabilitate egoerak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela frogatzen duena.

2. Justifikazioa aurkezteko epea:

Harik eta eskabideak aurkezteko epea bukatu arte, salbu eta diru-laguntzaren banakako gehieneko zenbatekora iristen ez diren eta gastu gehiago ekartzen dituzten eskabideak. Eskabide horiek hamar egun natural izango dituzte gastu horiek justifikatzeko, I.2) klausularen arabera, JEZen alta ematen den egunaren hurrengo hiru hilabeteetatik aurrera zenbatzen hasita.

N. ITZULTZEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Jasotzen diren zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharko dira, eta berandutze-interesa eskatuko da diru-laguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte.

Itzultzeko berariazko arrazoiak:

1. Jasotzen den diru kopuru osoa edo zati bat itzuli beharko da, eta berandutza interesa eskatuko da diru-laguntza ordaintzen denetik dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den arte, honako kasu hauetan:

a) Eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza erdiestea eragotziko luketenak ezkutatuz diru-laguntza lortzea.

b) Helburua, jarduera, proiektua edo diru-laguntza emateko arrazoi den jokabidea ez betetzea, ez osorik ez partzialki. Atal honetan honako alderdi hauek sartzen dira bereziki: diru-laguntza emateko arrazoi den helburua ez betetzea, ekintza politikoak edo errebindikazio-ekintzak barne hartzen dituzten jarduerak egitea, edo edozein bide erabiliz (tolerantzia hutsez bada ere) horrelako ekintzak gauzatzeko erabiltzen diren jarduerak, baita herritarren askatasunaren aurkako jarduerak ere.

c) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar bezala ez justifikatzea.

d) Finantza-egiaztapenari eta finantza-kontrolari aurre egitea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate-, erregistro- edo kontserbazio-betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta, horren ondorioz, jasotzen diren funtsei ematen zaien erabilera ezin bada egiaztatu, diruz laguntzen diren jardueren helburua, errealitatea eta erregulartasuna betetzen ez badira, edo xede bererako beste edozein administrazio edo erakunde publikotik edo



privatutatik datozen diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak batera ematen badira.

e) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta onuradunei ezartzen dizkien betebeharrak ez betetzea, bai eta horiek hartzen dituzten konpromisoak ez betetzea ere, baldin eta helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua gauzatzeko edo diru-laguntza emateko oinarri den jokabidea hartzeko moduari eragiten badiote edo horri erreferentzia egiten badiote.

f) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta onuradunei ezartzen dizkien betebeharrak ez betetzea, eta erakunde horiek diru-laguntza emateko hartzen dituzten konpromisoak (aurrekoen bestelakoak) ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotzen diren funtsen erabilera, helburua bete dela, diruz laguntzen diren jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo edozein administrazioak helburu bererako emandako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak (Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein privatutatik datozen laguntzak) aldi berean gertatu direla.

g) Jarduera Arratiako Udalen Mankomunitateak diruz laguntzen duen dokumentazioan eta propagandan publizitate- eta hedapen-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea, baldintza hori ezarri den kasuetan.

2. Onuradunaren edo, hala badagokio, erakunde laguntzailearen betetze-maila nabarmen hurbiltzen bada guztiz betetzera, eta onuradun horrek edo erakunde laguntzaile horrek argi eta garbi egiaztatzen badu bere konpromisoak betetzera bideratutako jarduketa bat, proportzionaltasun-irizpidea aplikaturik zehaztuko da itzuli beharreko zenbatekoa; Horrela, onuradunak diru-laguntzaren portzentaje-zenbatekoa jasoko du, diruz lagundutako jardueraren betetze-mailaren arabera, organo emaileak dagokion espedientea abiarazi ondorik.
3. Era berean, diruz laguntzen den jardueraren kostua gainditzen duten diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak biltzen badira, diru-laguntzaren xede den jardueraren kostuaren gainean erdiesten den soberakina itzuli beharko da, bai eta horri dagokion berandutze-korritua ere.

Ñ. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA:

Deialdi honen, beronen oinarrien eta horiek betetzeko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsu hauek aurkeztu ahal izango dira, hautabidez:

- Berraztertze errekurtsua, administrazio egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsua jartzen zaion egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.
- Gora jotzeko errekurtsua, Bizkaiko Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsua jartzen zaion egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurtsua jartzen zaion egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da.

O. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

I. ERANSKINA. ESKABIDE EREDUA.

II. ERANSKINA. ESKATZEN DIREN BEHARKIZUNAK BETETZEAREN ETA ONURADUN IZATEKO DEBEKURIK EZ IZATEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.



III. ERANSKINA. XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKABIDEEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. ENPRESA-PLANA

V. ERANSKINA. IRUDIAK ERABILTZEKO, JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO ETA BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA

VI. ERANSKINA. JUSTIFIKAZIOA

VII. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKAERA

**-I. ERANSKINA-
-DIRU-LAGUNTZA JASOTZEKO ESKABIDEA-**

PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK					
IZEN-DEITURAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA					
NAN, IFZ, AIZ, IFK			EGOITZA		TELEFONOA
ZK.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	
[EZABATU BEHAR EZ DENA] BERE IZENEAN EDO HONAKO HONEN ORDEZKARI GISA JARDUNEZ*:					
IZEN-DEITURAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA				NAN, IFZ, AIZ, IFK	
JAKINARAZPENETARAKO DATUAK					
IZEN-DEITURAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA					
NAN, IFZ, AIZ, IFK			EGOITZA		
ZK.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	TELEFONOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA ⁽¹⁾					

Banakako ebaluazioaren araubideko dirulaguntzen deialdia ezagutzen dut; deialdiaren xedea: [BAOren zenbakian(e)koaren(e)(a)n argitaratua,]. Hainbestez, ondokoa

ESKATZEN DU: kontuan har dadila eskabidea. Horretarako, agiri hauek eranstean dira:

- Eskatzailearen nortasuna eta, hala badagokio, haren izenean jarduten duen pertsonaren ordezkartza frogatzen duten agiriak, deialdiaren F.4 a) atalean adierazten den moduan.
- Pertsona edo entitate eskatzaileak deialdian eskatzen diren beharkizunak betetzen dituela eta onuradun izateko inolako debekurik ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskineko ereduaren arabera.
- Pertsona edo entitate eskatzaileak zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituela egiaztatzea, deialdiaren F.4) atalean adierazten den moduan.
- Beste administrazio, erakunde edo pertsona publiko edo pribatu batzuek xede bererako eskatu eta/edo jasotako dirulaguntzen adierazpena, eskatutako zenbatekoa, erakundearen izena eta lortutako zenbatekoa zehaztuta (III. eranskina).
- Diru-laguntzaren xede den proiektua/ekintza/jokabidea/jarduera deskribatzen duen memoria. Egoki den enpresa-plana, orientabide gisa, alderdi hauen garapena izango duena: proiektuaren eta ekintzailearen



deskribapena, proiektuaren egungo fasea, diru-sarreraren, gastuen eta inbertsioen aurreikuspena, proiektuaren finantzaketa-plana, errentagarritasun-atalasea eta sortutako lanpostu-kopurua.

- F.4) ataleko g) atalean adierazitako dokumentazioa, transferentzia bidez ordaintzeari buruzkoa (udal ereduaren arabera) eta h), diru-laguntzaren justifikazioari buruzkoa, egoki den "justifikazio kontuaren" bidez.

Igorren, _____(e)ko _____aren _____(e)(a)n

(Sinadura)

⁽¹⁾ Helbide elektronikoa sartzek esan nahi du komunikabide hori lehentasunezko komunikazio eta jakinarazpen bide gisa onartzen dela deialdi honi buruzko edozein gairen gainean.

DATUEN BABESA. Arratiako Udalen Mankomunitatea da botere publikoen jardunean diru-laguntza kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen arduraduna. Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzenak ez badira zuzentzeko eta datuok ezabatzeko, baita beste eskubide batzuk ere, Erregistro Orokorrera joz [Elexalde kalea, 49, 48140 Igorre (Bizkaia)].

OHAR GARRANTZITSUA: *dokumentua behar bezala ikusteko, PDF formatuan deskargatzea eta bistaratzea gomendatzen da.*

**- II. ERANSKINA -
-ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA-**

Izena: jn./and.; jakinarazpenetarako helbidea:; NAN-zk.:; telefono-zk.:; e-maila:; bere izenean edo(r)en ordezkari legez jardunik [(dagokionaren arabera); helbidea:; IFZ:; telefono-zk.:; eta **gazte ekintzaileek enpresak sortzeko** banakako ebaluazio-araubideko diru-laguntzen deialdiaren berri jakinda, honakoa

ADIERAZTEN DU:

- Onuradun izateko deialdian ezarriak dauden baldintza orokorrak betetzen dituela.
- Deialdian aurreikusitako onuradun izateko debekurik ez duela.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituela.
- Eskatzen duen diru-laguntzaren zenbatekoa diru-laguntza emateko oinarri diren helburu eta jarduerak betetzeko erabiliko duela hitz ematen duela.
- Adierazpen honetan adierazten diren alderdiak hamabost eguneko epean egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela, errekerimendua egiten zaion egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eta horrela ager dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, honako hau egin eta sinatzen dut,

Igorren, _____(e)ko _____aren _____(e)(a)n

(Sinadura)

DATUEN BABESA. Arratiako Udalen Mankomunitatea da botere publikoen jardunean diru-laguntza kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen arduraduna. Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzenak ez badira zuzentzeko eta datuok ezabatzeko, baita beste eskubide batzuk ere, Erregistro Orokorrera joz [Elexalde kalea, 49, 48140 Igorre (Bizkaia)].

**- III. ERANSKINA -****- JASOTAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKABIDEEI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA -**

Izena: jn./and.; jakinarazpenetarako helbidea:; NAN-zk.:; telefono-zk.:; e-maila:; bere izenean edo(r)en ordezkari legez jardunik [(dagokionaren arabera); helbidea:; IFZ:; telefono-zk.:; eta **gazte ekintzaileek enpresak sortzeko** banakako ebaluazio-araubideko diru-laguntzen deialdiaren berri jakinda, **eskatu den diru-laguntzari dagokionez**, honakoa

ADIERAZTEN DU:

- Deialdi honen xede bererako, Espainiako edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko edo pribatu edo partikular batzuen diru-laguntzarik eskatu edo lortu ez izana.
- Deialdi honen xede bererako, Espainiako edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko edo pribatu edo partikular batzuei diru-laguntza hauek eskatu izana:

Eskatutako diru-laguntzak: (adierazi datak, entitateak eta zenbatekoak)

- Deialdi honen xede bererako, Espainiako edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko edo pribatu edo partikular batzuen diru-laguntza hauek jaso izana:

Eskuratutako diru-laguntzak: (adierazi datak, entitateak eta zenbatekoak)

Datuak eguneratzeari dagokionez, diru-laguntza hau kudeatzen duen organoari (Arratiako Udalen Mankomunitateari) idatziz jakinaraziko diot adierazpen honekin batera doan diru-laguntza eskabidean gertatzen den edozein aldaketa, berau jakinarazi eta 15 eguneko epean, gehienez ere. Era berean, jardueraren funtzionamenduaren lehen 18 hilabeteen barruan gerta daitekeen edozein aldaketa jakinaraziko dut, jarduera utziz gero jasotako diru-laguntza itzuli behar izateko aukerarekin, betiere jarduera bertan behera uztea ezin bada egotzi ezinbesteko arrazoi batengatik.

Igorren, _____(e)ko _____aren _____(e)(a)n

(Sinadura)

DATUEN BABESA. Arratiako Udalen Mankomunitatea da botere publikoen jardunean diru-laguntza kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen arduraduna. Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzenak ez badira zuzentzeko eta datuok ezabatzeko, baita beste eskubide batzuk ere, Erregistro Orokorrera joz [Elxalde kalea, 49, 48140 Igorre (Bizkaia)].



**-IV. ERANSKINA-
- ENPRESA-PLANA-**

Negozioaren izena:			
Negozioaren helbide fisikoa:			
Jarduera edo esparrua:		JEZ kodea:	
Araubide juridikoa:			

Jardueraren deskribapena:**Negozia sustatzen duten pertsonen zerrenda:**

Izen-deiturak	Postua edo kargua

Sortutako lanpostuak:

Emakumezkoak:		Gizonezkoak:		Guztira:	
---------------	--	--------------	--	----------	--

Ustiapen-datuak:

Norberaren funtsak	€	Sarreraren urteko aurreikuspena:	€
Inbertsioen aurreikuspena:	€	Finantzaketa (maileguak):	€
Gastuen urteko aurreikuspena:	€	Finantzaketa (diru-laguntzak):	€

Igorren, XXXX(e)ko XXXXXXXXXaren XX(e)(a)n

(Eskatzailearen sinadura)

DATUEN BABESA. Arratiako Udalen Mankomunitatea da botere publikoen jardunean diru-laguntza kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen arduraduna. Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzenak ez badira zuzentzeko eta datuok ezabatzeko, baita beste eskubide batzuk ere, Erregistro Orokorrera joz [Elexalde kalea, 49, 48140 Igorre (Bizkaia)].



V. ERANSKINA

IRUDIAK ERABILTZEKO, KOMUNIKAZIOAK BIDALTZEKO ETA BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA

Izena: _____ jn./and.; NAN-zk.: _____

- BAIMENA EMATEN DIOT** Arratiako Udalen Mankomunitateari IRUDIAK ETA BIDEOAK tratatzeko. Irudi eta bideo horietan, banaka zein taldean, gazte ekintzaileek enpresak sortzeko diru-laguntzen deialdia garatzeko antolatzen diren ekintzak azaldu ahal izango dira; irudiok eta bideok erakundearen web orrian (www.arratia.net) eta beste edozein komunikazio-bide ofizialetan (erakundeak dituen beste web gune batzuetan, sare sozialetan dauden profil ofizialetan eta abarretan) argitaratu ahal izateko baimena ere ematen dut.
- BAIMENA EMATEN DIOT** Arratiako Udalen Mankomunitateari enplegu-gaiei buruzko informazioa posta elektronikoaren, posta arruntaren edo telefonoaren bidez bidaltzeko, I. eranskinean emandako harremanetarako datuak erabiliz (jakinarazpenetarako datuak).
- BAIMENA EMATEN DIOT** Arratiako Udalen Mankomunitateari, 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, diru-laguntza honen xede den proiektu bererako beste diru-laguntza batzuen emakidari buruz beste administrazio publiko batzuetan dauden datuak kontsultatzeko.

Igorren, _____(e)ko _____aren _____(e)(a)n

Sin.: _____

(Interesduna)

DATUEN BABESA. Arratiako Udalen Mankomunitatea da botere publikoen jardunean diru-laguntza kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen arduraduna. Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzenak ez badira zuzentzeko eta datuok ezabatzeko, baita beste eskubide batzuk ere, Erregistro Orokorrera joz [Elexalde kalea, 49, 48140 Igorre (Bizkaia)].



**- VI. ERANSKINA -
-JUSTIFIKAZIOA-**

Egindako gastuen zerrenda (fakturak ordena berean eta zenbakituta erantsi, taula honen arabera).

ZK.	FAKTURAREN DATA	KONTZEPTUA ETA JAULKITZAILEA	ZENBATEKO GORDINA	ZENBATEKO LIKIDOA
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
17				
18				
19				
20				
21				
22				
23				
24				
ZENBATEKOA, GUZTIRA:				

OHARRA. Behar izanez gero, taula honi lerro gehiago erants dakizkioke.

DATUEN BABESA. Arratiako Udalen Mankomunitatea da botere publikoen jardunean diru-laguntza kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen arduraduna. Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzenak ez badira zuzentzeko eta datuok ezabatzeko, baita beste eskubide batzuk ere, Erregistro Orokorrera joz [Elexalde kalea, 49, 48140 Igorre (Bizkaia)].



Hauxe da publikoa egiten dudana jende guztiak ezagutu dezan.

Igorren, 2020ko urriaren 28an

Sin.: Andere Ortuzar Uribe
PRESIDENTEA